



'GELDIROCK' JAIALDIA AHT-REN AURKA

Leitzan antolatu dute etzirako, larunbatarekin, Sakanako AHT Gelditu! Elkarlanak eta Atekabeltz Gaztetxeak 17

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-11-13**

VIURTEA 1.558.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herenegun inauguratu zuten Kultur Truke 08 Hamabostaldia; irudian udal ordezkari eta antolatzaileak. HITZA

SAHARA ETA EKUADOR EZAGUTZEKO AUKERA KULTUR TRUKE 08-AN

IBARRA Ibarrak Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriekin duen senidetzea dela-eta egin ohi dute Kultur Hamabostaldia 7

Itunpeko ikastetxeetako grebak jarraipen handia izan du

TOLOSALDEA Tolosako, Ibarako, Villabonako, Irurako eta Anoetako ikastetxeetan bat egin zuten atzoko deialdiarekin 2



Itunpeko ikastetxeak hutsik egon ziren atzokoan. I. TERRADILLOS

Gaur aurkeztuko dute udaletxea berritzeko proiektua

BERASTEGI 21:00etan egingo dute udaletxearen aretoan; herritarren ekarpenak bildu nahi dituzte 6

XVIII. Herri Krosa antolatu dute igande honetarako, festa giroan

IKAZTEGIETA Hamaiketakoa eta sariak izango dira; jada 108 lagunek eman dute izena 5

ONITZA LASA EA-REN ZUZENDARITZAKO KIDEA

«Gehiengoaren nahia da, EAJ proposatzen ari den ibilbidea ikusita batik bat»

TOLOSA Bakarrik aurkeztuko da EA bozetera; «herri erantzukizunagatik» dela dio Lasak 2

txokoa **h**

Sarrera pareta

zozketan, deitu eta eskuratul



**BRUESA GBC
DKV Joventut**

IGANDEA

AZAROAK 16-12:30

ILLUNBE



2 sarrera pare

zozketan,
deitu eta eskuratul



ALURR
dantza taldeak
eskeinita
SUA ikuskizuna

Azaroak 16, igandea
19:30ean
Tolosako Leidorren

E Elkarrizketa **ONINTZA LASA** › Eusko Alkartasunaren zuzendaritzako kidea

«Herri erantzukizunagatik hartu du erabakia EAk»

Politika › Bakarrik aurkeztuko da 1998tik lehenengoz EA, EAJrekin zuen koalizioa baztertuta; guztiak, ordea, ez daude erabat ados zuzendaritzak hartu duen erabakiarekin.

INIGO TERRADILLOS

Pasa den urtean ezohiko kongresuan hartu zuen erabakia berretsi du Eusko Alkartasunak zuzendaritzak, eta bakarrik aurkeztuko da 1998tik lehenengoz Legebiltzarreko bozetara, EAJrekin koalizioa baztertuta. Onintza Lasa (Tolosa, 1972) EAko zuzendaritzako kidea da, eta gehiengo delako bakarrik joateko borondatea duena azaldu du.

Zer dela eta aurkeztuko da bakarrik EA bozetara?

Pasa den urtean egin genuen ezohiko biltzarrean erabaki hori hartu genuen, azken bi hauteskundeetan bakarrik aurkeztu da EA, eta duela bi aste egin genuen batzarrean ere berretsi egin genuen erabaki hori, bakarrik aurkezteko alegia. Alderdiaren baitan gehiengoaren borondatea da horrela egitea, batez ere, ikusita gure kide ibildakoa proposatzen ari den ibildikoa.

Zeintzuk dira, beraz, koalizioarekin ez jarraitzeko izan dituzuen desberdintasun handienak?

EAk izaera independista du, eta herriaren alde joatea izan du helburu betidaniak. Bestalde, une honetan argi dugu gure erabakitzeko beharrezkoa ikusi dugu, helburua hartu behar baita kontuan. Izan ere, guk betiko ibilbidean jarraitzen dugu tinko; borondate argia dugu herri honen eskubideen defentsan jarraitzeko helburuari eusteari, baina hori bai, demokratikoki eta era baketsuan.



I.T.

Zuri pertsonalki zer iruditzen zaizu koalizioa utzi eta bakarrik aurkezteko ideia?

Zuzendaritzako kidea naiz, eta erabat bat nator hartutako erabakiarekin. Ilusio handiarekin gaude etorkizun hurbilari begira, baina etorkizun urruna ere hor dago, aurrera egin behar dugu, eta gure eskubideak onartuak izan behar dutela sinetsi behar dugu. Nik, esaterako, beti sinetsi izan dut herriarren parte hartzean.

Dena den, ez dira alderdiko kide guztiak bakarrik joatearen alde agertu. Gipuzkoako EAk «huts politiko larria» dela esan du?

Batzar nazionallean Gipuzkoako jendea ere badagoela esan behar da. Ni konbentzita nago gure alderdiarentzat onena dela hartu dugun erabakiarekin jarraitzea. Gainera, EA guztia joango da hartu dugun erabakiarekin. Beti egon izan dira bi sentsibilitate, baina EA bat da.

Azken hauteskundeetan EAJ gabe aurkeztu zineten, eta alderdiak beherkada bat izan zuen. Zer espero duzue aurrera begira gertatuko dela?

Ez dakit zer gertatuko den, baina guk argi dugu jende asko dagoela benetan aurrerakoia dena, independista eta herriaren eskubideen alde egin nahi duena. Eusko Alkartasunak herri erantzukizunagatik hartu du erabaki hau, gure herriaren eskubideen defentsan aurrera egiteko. Gu gure egitasmoekin goaz, eta ez gaude hauteskundeetan pentsatzen.

Askok EAJ kanpoan geratuko litzatekeen abertzaleen arteko koalizioa ere aipatzen dute.

Guk, kasu honetan, bakarrik joateko erabakia hartu dugu. Dena den, beste askotan erakutsi izan dugun bezala, kolaborazioak, koalizioak edo loturak egin ditzakegu, beti ere, herriaren alde egitea bada helburua.



Ez zen eskolarik egon atzokoan eskualdeko itunpeko ikastetxeetan. I.T.

Jarraipen handia izan du itunpeko ikastetxeetako grebak

Gizartea › Tolosako, Ibarako, Villabonako, Irurako eta Anoetako ikastetxeetan bat egin zuten deialdiarekin.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko haur eta gaztetxo ugari eskolarik gabe izan ziren atzo, greba eguna baitzuten itunpeko ikastetxeetan ELA, LAB eta EILAS sindikatuek deituta. Hala, eskola publikoak ez direnek, atzokoan, egun osoan zehar, ezohikoa den itxura ageri zuten, hutsik baitzeuden ikasgelak eta patioak.

Greba deitu zuten sindikatuen arabera, «jarraipen zabala» izan zuten atzo Araba, Bizkai eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetako grebak, eta eskualdeari dagokionez ere horrela izan zen, izan ere, Tolosako, Villabonako, Ibarako, Irurako eta Anoetako ikastoletan bat egin zuten grebarekin, Tolosako Hirukide ikastetxean bezala.

Ikastolak eta eskola erlijiosoaik dira, besteak beste, itunpekoen sarekoak, eta 160.000 ikasle inguru batzen dituzte denera Euskal Au-

tonomia Erkidegoan. Bertako langileek euren lan baldintzak sare publikoekin parekatzea eskatzen dute, eta hori posible egingo duen finantzaketa markoa onartzea eskatzen diote, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. ELA, LAB eta EILASek egin zuten deialdia, eta beraiek emandako datuen arabera, grebak %80 inguruko jarraipena izan zuen: ikastoletan %100ekoa eta gizarte ekimenean ikastetxeetan %70ekoa Bizkaian eta Gipuzkoan eta %50ekoa Araban.

Eusko Jaurlaritzak, aldiz, datu apalagoak eman zituen: irakasleen %60,6 eta ikastetxeen %60 Gipuzkoan, irakasleen %31,3 eta ikastetxeen %45,4 Bizkaian eta irakasleen %18,9 eta ikastetxeen %38,5 Araban. Hala, Hezkuntza Sailak azaldu zuenez, gehiegizkoa iruditzen zaio sindikatu horiek grebarako deialdia egin izana.

364 ikastetxetako 12.600 langile zeuden grebara deituta —11.600 irakasle eta bestelako lanetan aritzen diren beste 600 behargin—. Eguerdian, bestalde, manifestazio jendetsua egin zuten Bilbon, Guggenheim paretik abiatuta.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Irati Mujika askatzeko exijitu dute

POLITIKA ■ Irati Mujika amezketarra aske uzteko eskatu zuten atzo ere eskualdeko gazte independentistek, elkarretaratzea burutuz. Mujika, Mikel Beunza eta Oihan Ataunekin batera atxilotu zuten astelehenean, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile den Fernando Grande Marlaskak aginduta. Segi erakundeko kide izatea leporatzen diote. Datozen egunetan ere mobi-

lizazioekin jarraituko dute. Alde batetik, Amezketan, «inkomunikaziotik atera edo aske utzi arte» elkarretaratzeak egingo dituzte 20:00etan hasita, herriko plazan. Halaber, Tolosaldeko ikastetxeetan geldialdi-tara deitu dituzte ikasleak bihar 10:30etik aurrera. Ondoren, 11:30ean, Triangulotik manifestazioa egingo dute. E. EZEIZA

Dikers eta Raizd izango dira etzi Bonberenean

Musika ■ Iruñeatik eta Donostiatik etorriko dira beraien azken lanak aurkezteko; 22:30ean hasiko dira kontzertuak.

ERREDAKZIOA

Etzi, 22:30etik aurrera Dikers eta Raizdx taldeak ariko dira Bonberenean hautsak astintzen.

Dikers taldea Iruñeatik dator bere azken lana, *Carrusel* aurkezteko asmoz. Iruñeko lokalik txikien bidez, 20 pertsonen aurrean jotzen hasi zirenetik hamar urte pasa dira eta disko berriarekin, ibilbideko bosgarrena, dator Dikers talde nafarra. *Carrusel* lanean estilo desberdinak landu dituzte, hip-hop doinuak, baladak eta koral pieza txiki bat ere sartu dute.

Carrusel (Locomotive Records) hamabi kanta berrik osatzen dute, letrakoso hurbilekoak dira, eguneroko gauzetaz eta mundu guztiari gertatzen zaizkion gauzetaz ari di-

renak. Musika estilo desberdinak landu dituzte, taldekideen esanetan, «horrekin ez dugu ezer komertzialik egin nahi izan, ezta publiko berria bilatu ere».

Iker Piedrafitra (taldeko bakarlari eta konpositorea), Iñaki Urroz (baxu-jotzailea) eta Rikar Martinez (bateria) Bilboko Fnac-en izango dira gaur, arratsaldeko zazpietatik aurrera kontzertu akustiko bat eskainiko dutelarik.

Raizdx taldea, berriz, Donostiatik dator bere azken doinuak aurkezteko asmoz. Iker Amezaga (gitarra) eta Raul Abuin (hasieran baxu-jotzailea eta gero abeslaria) elkartzean, 2002an sortu zen taldea. Hortikbi hilabetera, Dani Van der Voost (bateria) eta Iker Hernandez (baxu-jotzailea) gehitu ziren eta lehendabiziko maketa atera zuten. Iaz kaleratu zuten beraien azken lana *Pasen y Besen*. Rock metal doinuak egiten dituzte, eta etzi hauek ezagutzeko aukera izango da Tolosako etxe okupatuan.

'El hombre de rojo' antzezlan izango da ikusgai bihar, Leidor antzokian

Kultura ■ Minbiziaren Aurkako Elkarrekin antolatuta du ikuskizuna; 22:00etan izango da Algara antzerki taldekoen emanaldia.

tzen ez den ostatu batean garatzen da; gizon erretxin baten ostatuan. Arduradun honi bere ostatuan jendea egoteak gogaitu egiten du. Bertan lapur txoriburua eta sentikorra, idazle inozente eta beldurtia, nazioarteko lapur banda xe-



El hombre de rojo antzezlan aurkezten duen kartela. HITZA

ERREDAKZIOA

Minbiziaren Aurkako Elkarrekin antolatuta, Algara antzerki taldearen *El hombre de rojo* emanaldia izango da bihar ikusgai Leidor antzokian. Mikel Argotek zuzendutako komedia hau 22:00etan hasiko da. Interesatuak sei euroren truke eros ditzakete sarrerak, antzokiko lehiatilan.

El hombre rojo komedia bat da; 60. hamarkadako *El hombre tranquilo* izeneko umorezko lanaren egokitzapena. Mamia inor geldit-

6 euro kostako da emanaldiko sarrera; dirua Minbiziaren Aurkako Elkarrekin antzerki taldearengatik da

60. hamarkadako 'El hombre tranquilo' komedian oinarrituta dago biharko antzezlan

brea eta lapurtutako diamante batzuen ezkutaleku bitxia aurkituko ditu.

Antzezlanaren aktoreen zerrenda ondorengoa da: Luis Pozo, Beñat Aristi, Izaskun Aramburu, Itziar Agirre, Mikel Argote, Isabel Pampin, Iosu Salegi, Arantza Las-kibar eta Iñigo Azpitarte.

Ekintza solidarioak bultzatzea helburu

Algara Zarauzko antzerki taldea 1987. urtean jaio zen. Zarauzko drogaren aurkako talde batentzat dirua jasotzeko bildu eta antzezte-ari ekitean hasi zen talde honen ibilbidea. Beraien helburua kome-

diazko antzerkiak egitea zenez, euren taldeari Algara izena jarztearabaki zuten.

Gaur arte bederatzi antzezlan egin dituzte: *Vaya par de sinvergüenzas*, *Don Armando follones*, *Ito edo ezkondu*, *La tia de Carlos*, *Katzu koka*, *Aitona*, *Este muerto es un vivo*, *Baiezalea*, *ez ezalea*, *Un follon de testamento* eta *El hombre de rojo*. Azken antzezlan hau da, esan bezala, bihar Tolosan ikusgai izango dena.

Antzerki taldeak, *El hombre de rojo* antzezlan programatzeko

orduan, herri bakoitzean asmo solidario bat laguntzea hartu zuen ardatz. Erroka hori betetzen saiatu da orain artekoetan, eta Tolosakoarekin ere gauzatuko du helburua.

Algarak beste herri batzuetan ere eskainiko du bere antzezlan solidarioa. Besteak beste, datozen hilabeteetan, Arrasate, Oñati, Eibar eta Irun bisitatuko ditu Zarauzko antzerki taldeak. Donostian eskainiko duten saioarekin amaituko dute denboraldi honetako bira.

Asteburu honetan Aurrera-Saiazek lortutako emaitzak

Esku pilota ■ Gipuzkoako Kluben Txapelketa ari da jokatzeko, eta bertan dira eskualdeko pilotariak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Kluben Txapelketa- ren baitan hainbat partidak jokatu zituzten Aurrera-Saiazekoek. Ostiralean, kadeteen mailan hiru partida jokatu zituzten Bidegoianen. Lehendabizikoan, 22-4ko emaitzarekin irabazi zieten Behar zanakoei Aurrera-Saiazekoek. Beste bi partidetan berriz, galdu egin zuten. Batzuk, 10ean geratu ziren Zazpi-Iturrikoen aurrean, eta besteak, 5ean, Mundarrokoen aurka.

Egun berean, jubenilen mailan beste partida bat jokatu zuten Ibarrran. Hemen, ez zuten tanto bakarra egitea ere lortu eskualdekoek, Ernioekoen aurka. Seniorrak ere Ibarrran aritu ziren lehian, eta 22-17 irabazi zion Elordikoei. Maila berean, baina egun bat beranduago lehiatu zen Aurrera-Saiazeko bikote bat, Beotibar pilotalekuan, Aretxabaletoen kontra. Hemen, 19-22 galdu zuten Tolosaldekoek.

Beotibarren ere, jubenilen banakakoetan, Aurrera-Saiazeko bikote 22-13 irabazi zion Lagunakoari. Besteak, Ilunpekoari berriz, irabazi, 22-12.

@ Bideoak. Eskualdean gertatutako gauzen inguruko albisteekin batera ikusgai dira tolosaldeko eta leitzaldeko hitza egun-kariaren webgunean, hainbat bideo. Dagoeneko 90 bideotik gora ikusi daitezke. Hauek gaiaren arabera ataletan banatuta daude. Aurkitu daitezkeen gaietako batzuk hauek dira: Abiadura Handiko Trena, antzerkiak eta ikuskizunak, bertsoaritzak, inauteriak, kilometroak 08, kirola, musika, natura eta politika.

www.tolosaldekohitza.info

E **Elkarrizketa****IRATXE ESNAOLA** Informatika ingeniaria

Informatika » Software Librearen inguruko jardunaldiak eta tailerrak antolatu dituzte aste honetan Tolosan; Iratxe Esnaola zarauztarra da koordinatzailea.

GARI BERSALUZE

EHUko Sanchez-Mazas Kate-drak *Nola erabili Software Libre?* tailerrak antolatu ditu gaur eta bihar Tolosako KZgunean, 18:00etatik 20:00etara, aurreko egunotan Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean *Software Libre Euskal Herrian* jardunaldiak egin ondoren. Iratxe Esnaola (Zarautz, 1981) izan da jardunaldi hauen koordinatzailea.

Gaur, euskarazko software libre guztia aurkeztu ondoren, *Ubuntu* sistema eragilea erabiltzen erakutsiko dute. Baita Internetekin zerikusia duten hainbat programa ere, hala nola *Firefox* nabigatzailea, *Thunderbird* posta kudeatzailea eta *Pigdin* txateatzailea. Bihar, berri, *Open Office*-a eta hainbat *Wiki*-ren erabilera.

Zein da tailer hauen helburua?

Gaur eta bihar Gipuzkoako bost herritan egingo diren tailerren helburua nabarmena da: tresna libreak modurik zuzen, praktikoa eta eraginkorrenean jendarteratzea. Software Librearen filosofiaz asko teorizatu daiteke, filosofia librea zer den, zer ez eta zergatik den beste teknologia mota batzuk biaino etikoagoa. Baina, finean, software libreak, softwareari egiten dio erreferentzia, programei, ordenagailuan instalatuak ditugun eta erabiltzen ditugun aplikazioei. Eta aplikazio informatikoak direnez, ezagutzaz harago, aplikazio horien guztien erabilera da garrantzitsua. Beraz, tailer hauen helburu nagusia, Software Librea egunerokotasunean ditugun behar informatikoei erantzuteko gai den alternatiba erreala dela erakustea da.

Jendeak beldurra dio Software Libreari. Zaila da sinesten 4 ordutan programa horiek erabiltzen ikas daitekeenik.



HITZA

«Software Librearen aldeko apustua erabaki politikoa da»

Askotan esan ohi da «ikasteko desikasi» egin behar dela. Tailer hauek hurbilduko diren pertsonak, ziur aski, ezagutuko dute beste sistemaren bat. Erabilera berdina egin ahal izango dute, baina programa eta sistemaren zerbitzuera iristeko bidea izango da aldatu dena. Kasu honetan, beraz, ez da bide berdinarekin bila joan behar. Beste sistema bat da, beste bide batzuk dituen, baina orain arte erabiltzen duten sistemarekin egiten duten guztia egin ahal izango dute.

Are gehiago. Beste sistema bat ezagutzen dutenek, abantaila argi bat dute: badakite ordenagailuarekin zer egitera iritsi nahi duten. Aurrez inongo ezagutzarik ez dutenen ka-

suan, ez dago ezer «des-ikasi» beharrik. Software Librearen bideak izango dira ikasiko dituzten lehenak eta ikaskuntza bera da kostatuko zaiena, beste edozein sistemarekin gertatuko litzaziekeen bezala. Beraz, ez da zaila, baina ezberdin funtzionatzen du eta beste kontu eta sistema berri guztiekin egin behar izaten dugun moduan, ikastea eta denbora eskaintzea eskatzen du Software Librearekin.

Tailerra KZguneetan izango da. Eusko Jaurlaritzak Software Libre bultzatzen hasi da?

Egia da azken urtetan urrats txikiak egin direla. Egia da, bestalde, Eusko Jaurlaritzak Software Li-

brearen euskaratzeko bere ekarpena eta baliabideak eskaintzen dituela ere. Baina epe luzearako estrategia teknologikoak behar dira. Software Librearen aldeko apustua erabaki politikoa da, tokian tokiko industria eraldatu dezakeena. Eta horrexegatik, hain zuzen, erabaki politikoa ausarta da, baina estrategia. Beraz, urrats txikiak egin dira eta poztetako da, baina aurrerapauso ausartak behar dira. Zentzu horretan, eta urrutira joan gabe, Extremadura eredu argia da, zailantzarik gabe.

Gainean omen dugun krisi ekonomikoak Software Librean jautzia ematea erraztu edo zaildu egiten du?

Arrisku guztiak aukeraz jositako da tozela esaten da beti. Eta Software Libreaz ari garenean, esan daiteke krisi ekonomiko (edo, finantziario, hobe) aukera handi bat dela. Extremaduraren kasuan, eta beste askotan, gerora Software Librearen filosofian defendatzaile bilakatu diren arren, arrazoi ekonomikoetatik abiatutako erabaki politikoa izan zen Software Librearen aldeko apustua. Gertaliteke, beraz, zenbait enpresa, erakunde eta instituzioentzat, alternatiba informatiko bakarra bilakatzea. Baina ikusiko da.

Zein etorkizun ikusten diozu Software Libreari Euskal Herrian?

Euskal Herriko Software Libre-

Extremaduraren kasuan, arrazoi ekonomikoetatik abiatutako erabakia izan zen apustua

Software Libre da euskarari ateak irekitzen dizkion teknologia mota bakarra

Sistema berri guztiek bezala, ikastea eta denbora eskaintzea eskatzen du honek ere

ren komunitatea aktiboa eta konprometitua da. Esan daiteke egiten den ahalegina modu atomikoan egiten dela eta atomizazio horretan eraginkortasuna galtzen duela. Baina hala eta guztiz ere, komunitatea oso aktiboa da. Erabileran dago gako eta hor zabalitze lan handia dugu egiteko. Halere, aurkako galderak kezkatzen nau ni: zein etorkizun teknologiko du Euskal Herriak Software Librean? Eta erantzuna argia da: Software Libre da Euskal Herriak independentzia teknologikoa lortzeko bide bakarra. Software libre da euskarari ateak irekitzen dizkion teknologia mota bakarra. Euskal Herriak, beraz, duen errealtate ekonomiko, sozio-politiko eta kulturalagatik, Software Libre behar du, etorkizunean Euskal Herriaren behar informatikoak aseko dituen politika teknologiko bat marxtan jarri nahi badugu behintzat.



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako DENAK tabernan, OSKI arropa dendan Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

 **hitza** info
TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

XVIII. Herri Krosa datorren igandean izango da

Ikaztegieta » Dagoeneko 108 korrikalarik eman dute izena; bestalde, laguntzeko asmoa duena 09:00etan azaltzea eskatu dute.

ru duen haurren krosa egingo dute, baina herrikoek bakarrik hartu ahal izango dute parte. Hauek, kilometro bat egiten dute herrian zehar eta 10:45ean hasiko dira.

» HAINBAT DATU

- **Lasterketa.** Ikaztegieta XVIII. Herri Krosa.
- **Distantzia.** 10 kilometro.
- **Hasiera ordua.** 11:00etan.
- **Izen-emateak.** www.herrikrosa.com webgunean (6 euro) edo egunean bertan 09:00etatik 10:30era bitartean (9 euro).
- **Informazio gehiago.** 943 65 20 46 telefono zenbakian.

ERREDAKZIOA

Datorren igandean, hilak 16, Ikaztegieta XVIII. Herri Krosa izango da. Dagoeneko Internet bidez 108 lagunek eman dute izena. Joxe Mari Garmendia kiroldegiko arduradunak esan izan duen moduan, «gero eta jende gehiagok ematen du izena internetez».

Alegia aldera hasten da korrikaldia, hemendik berriro Ikaztegieta aldera hartu eliza atzetik, Legorreta aldera jo, eta buelta. Hori hiru aldiz egiten dute, eta bukatu, hasten den leku berean bukatzen dute, hau da; udaletxean. Guztira 10 kilometro dira.

Aurretik eta ohi bezala, parte-hartzea eta kirola sustatzea helbu-

Merezitako hamaiketakoa

Ondoren, proba bukatuta kiroldegian dutsa hartzeko aukera izango da eta indarrak hartzeko hamaiketako prestatuko dute Herrigintza kirol eta kultura elkarteok. Helmugaratzen diren lehen 200 lagunek ere kamiseta bat izango dute opari, oroigarri gisa.

Sariak senior mailako lehen hiru emakumei eta hiru gizonei, lehen emakume beteranoari eta gizon beteranoari (35 urtetik gorakoak), eta herriko lehen emakumeari eta lehen gizonari emango dizkiete.

Herrigintzako festa eguna

Denborarik onenak hauek dira: Jose Jabier Cuadrado (00:31:43), eta Ixiar Urdangarin (00:37:38).

Bide batez, Herrigintza elkartearen festa eguna igandean izango da ere. Egun honetan, elkarteko bazkideen bazkaria izaten da urtero. 30 euro ordaindu beharko du bazkideak izena ematean, elkartean, eta izena emateko azken eguna gaur da.

Bestalde, krosak eskatzen duen antolakuntza maila ikusita, laguntza emateko asmoa dutenak udalaxe inguruan 09:00etan azaltzea eskatu dute elkartekoek, «lana egiteko egongo da eta».



Musika eskolakoen emanaldiko une bat iaz, Kultur Astearen baitan. N.U.

Musika eskolaren aldeko festan, musika eta jaki goxo merkeak

Amezketak » Bihar izango da eta dirua ateratzeko otartekoak eta gaztain erreak merke egongo dira salgai, frontoi berrituan.

dira. Irailean hasi ziren eta Andoaingo Maitek prestatu ditu gogo eta ilusio handiekin. Hauekin batera, kantuak aberasteko eta edertzeko, Jose baxu-jotzailearen laguntza izango dute. Gitarra saio honen baitan trikitixa doinuak ere tartekatuko ditu Irmak eta bere ikasleek. Jai giro polita izango da beraz, Amezketan.

N.URBIZU

Bihar, musika eskolaren aldeko festa antolatu dute Amezketan. Al-tuna anaiak pilotaleku berrituan izango da gogotsu prestatu duten saioa, arratsaldean.

Haurrak eskolatik atera ondoren (16:30ean) musika eskolari laguntza emateko, otartekoak eta txokolata izango dira. Otartekoa eta txokolate razio bana bi eurotan jarri dituzte. Diru honekin musika tresnak erosi ahal izango dituzte, eta eguneroko oinarritzko beharrei aurre egin ahal izango diete.

17:30ean, berriz, trikitixa eta pandero saioa izango dira ikasleen eskutik.

Iluntzerako, 20:00ak aldera, hain zuzen, gitarra-jotzaile talde bat ariko da ere, zortzi bat neska, eta tartean ere kantatzen ariko

Iluntzean ere jatekoak prest

Iluntzeko kontzertu emanaldi honen bitartean txorixo eta xolomo otartekoak egongo dira salgai (2 eurotan) eta gaztain erreak azaroko iluntze hotza epeltzen laguntzeko (euro batean). Ogia Amezketako Ogiberririk eman die musika eskolakoei eta sagardo eta ardoa, aldiz, Udalak. «Eskerrak eman beharrean gaude, aurretik lagundu dutenei, eta bihar dirua emanaz, lagunduko digutenei», diote musika eskolako arduradunek.

Zozketa bereziak ere izango dira: zer zozketatuko duten jakite-hain zuzen, gitarra-jotzaile talde bat ariko da ere, zortzi bat neska, eta tartean ere kantatzen ariko



Iaz 170 lagunek hartu zuten parte Ikaztegieta XVIII. Herri Krosan. Irudian, joan den urtean, ateratzeko unean. HITZA



'Alegia barne-barnetik' ezagutzeko

ALEGIA » Galdare produkzioen eskutik, Alegiari buruzko proiektio bat ikusi ahal izan zuten herritarrek Alegiako Kultur Etxean atzo: *Alegia barne-barnetik*. Aitor Sarasola alkateak sarrera moduko bat egin zuen ordu

erdiko bideoaren aurretik, eta berak esan bezala, «herriko hainbat alderdi interesgarri jorratzen ditu: kultura, ondarea»... 1.000 ale ateratu dituzte, eta hauek eskuratzeko modua aurrerago argituko dute. N.U.

TOLOSA 2008
VIII. MUS TXAPELKETA AZKARRA
FRONTON KAFETEGIAN

Azaroak
15
Larunbata

Arratsaldeko
16:30
ean

SARIAK

1.-	1.500 €	+ Txapelak	+ Garaikurrak	+ Babarruna 1 kg.
2.-	800 €	+ Garaikurrak	+ Babarruna 1 kg.	
3.-	400 €			• Jokua 4 erregetara, 6 hamarretako 3 ustelera.
4.-	200 €			
5.-	100 €			• Bikote bakoitzaren ordainketa: 40 Euro Fronton Kafetegian
6.-	100 €			
7.-	100 €			
8.-	100 €			• Epailen erabakia mugagaitza izango da.

Finalistak 2009ko aurremundialetara gonbidatuta daude

Goma Gaineko Sokatira Txapelketa izango da larunbatean frontoian

Ibarra » Herriko hiru gazte ariko dira 17:00etatik aurrera; Lander eta Imanol Otermin anaiak eta Mikel Arsuaga hasiberria.

REBEKA CALVO

Larunbat honetan lehia gogorra izango da Ibarako frontoian, izan ere Euskal Herriko Goma Gaineko Txapelketa izango da 17:00etatik aurrera. Lehenago, 14:30ean, hasiko dira parte-hartzaileak pisatzen.

Guztira zortzi talde ariko dira lehian, horietako batean, gainera, herriko hiru gazte ariko dira; Lander eta Imanol Otermin, eskarmentu handikoak, batez ere Lander, eta ia hasiberria den beste bat, Mikel Arsuaga.

Zortzi talderen arteko lehia

Guztira, aipatu moduan, zortzi talde ariko dira. «Bizkaitik bi talde etorriko dira; Abadiñotik bi eta baita Sokarri ere beste bi talde-



lazio Ibarako txapelketako irudia. NEREA URIBIZU

kin. Asturiasetik Conceyos taldea etorriko da eta beste bat Baionatik. Gu, Astigarragako Auzolanekin, bi taldetan arituko gara», argitu du Lander Oterminek.

Larunbateko txapelketako jokatze modua ligaxka baten modukoa izango da, «denak elkarren

kontra», esan du Oterminek. Hiru jardunaldi izango dituzte eta bi jardunaldietan egingo da ligaxka modukoa. Azkenean zortzi taldeetatik sei onenak pasako dira finalera. «Finalen ia denak berriz ere zerotik hasiko dira eta hortik aterako dira hiru hobereak. Finala hiru

aste barru izango da oraindik ere zehaztu gabe dagoen herrian», argitu du soka tiralariak.

Ibarako tiralari taldeari dago-kionez, Oterminek parte hartzeko bi pisu desberdin aukeratu dituztela azaldu du «320 kilotakoa bata eta 300 kilotakoa, bestea, baina azken hau ia beste maila bat da. Guk 320 kiloko tirada aukeratu dugun».

Abadiñokoak, lehiakide latzak

Ibartarrak ez daki zer gertatuko den, izan ere ez daki Baionako taldeak nola egiten duen lan, baina aurreko lanak ikusita badaki Abadiñokoak, behintzat, lehiakide latzak izango direla. «Gure taldean tirada baten behintzat lan polita egiten saiatuko gara», gaineratu du.

Ibarakoak gogor entrenatzen hasiak dira noski, «hasieran suabe hasi ginen, baina orain ia fuere gabiltza». Astean hirutan entrenatzen dira Astigarragan, baina orain, larunbateko proba dela eta, asteartean eta gaur bakarrik arituko dira, «ostiralean deskantsatu ahal izateko».

Fronteniseko Txapelketan parte hartzeko epea, hilaren 19ra arte

Berrobi » Izena udaletxean, Iturrija janari dendan, Iriarte jatetxean edota Tolosako Aralarren eman daiteke.

ERREDAKZIOA

Urtero Begi-Gorri antolatuta ohi duen Berrobiko Fronteniseko Txapelketan parte hartzeko deia luzatu du jada elkarteak. Hilaren 19ra arte eman daiteke izena Berrobiko udaletxean, Iturrija janari dendan eta Iriarte jatetxean, edo Tolosako Aralar dendan.

Parte-hartzaileen zozketak hilaren 20an egingo dira 21:00etan Etxola aretoan. Txapelketaren egunak hilaren 29 eta 30 izango dira, eta finalak abenduaren 6, 7, 8, 13, 14, 20 eta 21ean. Mutilen zein nesken txapelketa da; mutiletan binaka eta banaka ariko dira; lehenengoek bikoteko 10 euro ordaindu behar dituzte, eta banakakoek 5. Nesketan binaka bakarrik ariko dira, 10 euroren truke.

Udaletxea zaharberritzeko proiektua aurkeztuko dute gaur

Berastegi » Udaletxeko aretoan egingo dute 21:00etatik aurrera; herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte bertan.

ERREDAKZIOA

Berastegin gaur 21:00etatik aurrera udaletxeko aretoan, eraikina zaharberritzeko udalak adostu duen proiektua azalduko dute.

Herritar guztiak bertan egotera gonbidatu nahi dituzte, izan ere, egitasmorako herritarren ekarpenak jasoak badituzte ere, gaurko aurkezpenean ere berriak jasotzeko eta aztertzeko prest dago Udala.

1734. urteko eraikina

Udaletxe zaharra oso hondatuta zegoen jada eta istripuen beldurrez ere egon dira. Gogoratu behar da eraikina, eta plazaren zabalkundea, 1699. urtetik 1734. urtera bitarte iraun zuela eta Martin de Zabaleta eta Martin de Etxeberriak diseinatu zutela. Udaletxeak baditu gorde beharreko hainbat elementu: 1730. urteko Domingo de la Sotaren armarrria edota Pablo Etxeberriaren 1945ko erlojua.

Zaharberritzea «behar-beharrezkoa» zela argitu du Udalak, baita ere, egitura arazoak (egiturako



Berastegiko udaletxe inguruaren hobetzea ere aurreikusten du zaharberritzeko proiektuak. HITZA

paretak falta ziren, instalakuntza ezegokiak zituen eta asentamentuak ere ez zeuden era egokian) eta espazioaren beraren galera zela eta. Behin obrak hasita zaharberritzea 30 hilabeteetan bukatuko dutela aurreikusten dute eta guztira, eraikina bera eta ingurua berritzen, lau milioi euro inguru gastatuko dituzte.

Hau dela eta, proiekturako erabili dituzten oinarriak berastegitarren kultur ondare hau babestea, arazo arkitektonikoak aztertzea eta komponentza eta gaur egungo beharrei erantzuten dien progra-

ma antolatzea izan da. Horiiek horrela, udaletxe berriak sotoko solairua, beheko solairua, beste bi solairu eta teilatupekoa izango ditu. Solairu guzti hauetan ohiko udal iharuarari beharrezkoak diren azpiegiturak jasoko dituzte; giza zerbitzuetarako egoitzak (osasun eta gizarte zentrua, posta eta bake epaitegia); udalerrri eta bailarako kulturune erreferentziala sortuko dute (liburutegia, KZgunea, ikasgelak, kultur mintegia, antzerki aretoa...); eta bailara eta Leitzarango turismoa suspertzeko turismo bulegoa, BTT turismo

puntua, turismo berdea, aldagelak eta komunak izango ditu. Era berean, bertako nekazal produktuei saltoki berria emango diete bertan eta baita ingurumen heziketarako gelak ere.

Irisgarritasuna eta ingurua

Udaletxea beraren eraikinarekin batera, zaharberritze proiektuak ingurua eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak ere aurreikusten ditu, helburuak enparantzaren giza eta monumentu izaera berreskuratzea eta eskaintza zabaldu ete ingurua hobetzea direlarik.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Etzi, azaroaren 15ean, 'Geldirock!' ekimena ospatuko dute Leitzako Gaztetxean. NAIARA GARZIA

'Geldirock!' ekimenaren barnean AHTren aurka

Leitza » Sakanako AHT Gelditu! Elkarlanak eta Ateakabeltz Gaztetxeak jaialdia antolatuko dute etzira.

ASIER IMAZ

Sakanako AHT Gelditu! Elkarlanak eta Leitzako Ateakabeltz Gaztetxeak *Geldirock!* ekimena antolatuko dute etzi, azaroak 15, Leitzako Gaztetxean.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako jaialdian modu ezberdinetako ekitaldiak burutuko dituzte. Aldarriek Leitzako kaleetan ere izango dute oihartzuna; giza-trena adibidez, 20:30ean herriko plaza-tik irtengo da.

Kalean eta Gaztetxean
Geldirock! 18:00etan jarriko dute martxan. Hala eta guztiz ere, ekimenaren aurkezpen ofiziala afal ostean egingo dute. Lehen ekitaldia beraz 18:00etan egingo dute Gaztetxean, bideo proiektio bat eskainiko dutelarik.

19:00etan kalera irtengo dira, aldarrikapen kutsuko kalejira, poteo eta kartelada bat burutuko dutelarik. Ondoren Gaztetxera itzuliko dira luntxa eta *Geldirock!*-en aurkezpena egitera.

22:00etan kontzertuak
Ateakabeltz Gaztetxean 22:00etan kontzertuak egingo dira. Bertan hiru talde arituko dira lanean: Txuruskadak punk, rock eta ska doinuak eskainiko dituzte. Manifa

taldeak punka joko du eta Kasu! taldeak rock borrokalaria.

Kontzertuekin eta gau giroan amaitutzat emango dute Abiadura Handiko Trenaren aurkako *Geldirock!* ekimena.

» EGITARAUA

Etzi, azaroak 15

- **18:00.** Bideo proiektioa Gaztetxean.
- **19:00.** Kalejira-poteo-kartelada.
- **20:30.** Giza-trena plazatik hasitako.
- **Ondoren.** Luntxa eta *Geldirock!*-en aurkezpena Gaztetxean.
- **22:00.** Kontzertuak.



Sahara eta Ekuadorreko artelanak

IBARRA » Astearte iluntzean eman zioten hasiera Ibarrran Kultur Trukea 08ri. Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriekin Ibarrrak duen senidetzea dela eta antolatuko ohi dute herrian hambostaldi hau. Hala, Ekuador, Sahara eta Ibarrrako artelanak biltzen dituen

erakusketaren inaugurazioarekin eman zioten hasiera hilaren 23an, igandearekin, amaituko den hambostaldia. Gaurkoan Saharako ipuin kontaketa saioa eta henna tatuajeen tailerra eta te dastatzea izango da 17:30ean Kultur Etxean. HITZA



Jon Rekondo aizkolaria eta Josetxo Urrutia aizkolaria. HITZA

Rekondo aizkoran eta Urrutia harri-jasotzen Errezil eta Donezteben

Leitza » II. Mailako Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko du Jon Rekondok; Josetxo Urrutiak erakustaldia eskainiko du.

A. IMAZ

Herri kirol ekitaldi ugari ospatuko dira asteburu honetan. Leitzar kirolariei dagokionez, Jon Rekondo aizkolaria eta Josetxo Urrutia harri-jasotzailea azpimarratu behar.

Rekondok II. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketan arituko da Errezilen (Gipuzkoa) igandean. Urrutiak erakustaldia eskainiko du bihar Donezteben.

Donezteben 17:30ean

Herri kirol jaialdi bikaina ikusteko aukera egongo da bihar, azaroak 14, Donezteben. 17:30ean, Nafarroako II. Mailako Aizkolaria Txapelketaren Finala jokatu dute Erasunek, Belarrak, Kañamaresek, Erdoziak eta Amillanok.


Doneztebeko jaialdian, Nafarroako II. Mailako Arpanlari Txapelketa ikusteko aukera ere egongo da. Bi txapelketa hauen artean, Joxetxo Urrutiak, Unai Bertizekin batera, harri-jasotze erakustaldia eskainiko du.

Errezilen 17:00etan

Aizkolaritza tradizio handia duen herrian, Errezilen, Jon Rekondok II. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu duko du igandean, azaroak 16ean. Ikastolako jolastokian, eguraldi txarra eginez gero pilotalekuan, hamaika aizkolaria elkartuko dira: Fausto Mugertza, Luisuari Belarra, Jose Angel Zubiaga, Joxe Ugarteburu, Javier Aranberri, Joxemari Teietxea, Joseba Otaegi, Xabier Mindegia, Jexumari Lasa, Manuel Kañamare eta Jon Rekondo leitzarria.

Hamaika hauetatik lehen seirek finalerako txartela lortuko dute. Errezilgo kanporaketan aizkolariek bost pago-enbor moztu beharko dituzte: 54 ontzako hiru enbor; 60 ontzako enbor bat eta 72 ontzako beste enbor bat.

Zuzenketa. Herenegungo alean, Altzadi Kultur Elkarteak antolatutako III. Ipuin edo narrazio lehiaketaren sari banaketan, Mikel Illarregiri saria Expe Lizarragak eman ziola jartzen zuen. Irakurle batek jakinarazi digunez, Koro Makatzagak eman zion saria irabazleari. Ondorioz, argazkian agertzen zen emakumea Koro Makatzaga zen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



12°
7°

GOIZA
ARRATS. HODIEAK
BEROENA 13°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Sendotza Pastorealean parte hartu nahi dutenek, izena eman dezakete parrokia etxean 19:00etatik 20:30era.
- **Tolosa.** 1958an jaiotakoek koktela eta afaria izango dute Fronton jatetxean. Izen-ematea, bertan 500 eurotan (619 420097).
- **Tolosa.** Aisialdi itsasuntzi eta yate patroli eta kapitain izateko ikastaroa Tolosan. Informaizoa: 665 724870 telefonoan.
- **Tolosa.** Babarrunaren Astearen baitan, hilaren 22an Babarrunaren ibilbidea egingo da. Izen-emate, Tolosaldea Tourren (943 697413).
- **Tolosa.** Babarrun Astearen barruan, hilaren 21ean Slowfood (janari mantsoa, Fast Food-en aurkako) afaria izango da Fronton jatetxean. Erreserbak 943 652941 telefono zenbakian.

Kultur asteak

- **Amezketeta.** Hego Ameriketara motean *Che-ren rutatik* Angel Cuerdoren eskutik 20:00etan gela polibalentean, Kultur Hamabostaldian.
- **Ibarra.** Saharako ipuin kontaketa saioa, henna tatuaien tailerra eta tea dastatzea Kultur Etxean 17:30ean.

Zinema

- **Tolosa.** *La tentacion vive arriba* film Leidor aretoan 19:15ean eta 22:15ean, zine-forumean.

Irteerak

- **Tolosa.** Aspe (2.645 m) eta Oroel (1.769 m) mendietara (Pirinioak) irteera antolatu du Oargi elkarteak datorren astebururako. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.
 - **Tolosa.** Urbasa - Goñi ibilaldia antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak hilaren 16rako. 7 orduko ibilaldia da eta Saratsa (1.171 m) igoko da. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).
 - **Villabona.** Biltoki jubilatutako elkarrean Logroñora irteera antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea, Biltokian, Txerminen.
- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
 - **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Eguzkipean, gurutzeraino

Tolosa » 134 haur eta guraso ugari bildu ziren pasa den asteburuan Alpino Uzturre elkarteak antolatutako ibilaldian.

ERREDAKZIOA

Eguraldi aparta lagun, guztira 134 haur bildu ziren pasa den igandean Alpino Uzturrek bere 50. urtemugan prestatutako ibilaldian. Haien ondoan, guraso ugari izan ziren. Plaza Zaharretik abiatu eta Izaskundik, Uzturreko gurutzera eta buzoira igo ondoren, Belabietatik berrera Izaskunera eta Plaza Zaharrera jaitsi ziren.

Zer jan eta opariak denontzat

Ibilbidean zehar antolakuntzak bi horniketara postu jarri zituen Opil okindegiak emandako opiltxoak, kruasanak, txokolata, goxokia, Insalusek emandako ura...banatzeko. Ederki eskertu zuten guztiak ere, egindako ahaleginak me-rezi zuten eta.

Goiz osoko ibilaldian Gurutze Gorriaren laguntza ere izan zuten, baina ezusteko larririk ez zen izan parte-hartzaileen artean. Amaieran ibilbidea egin zuten guztiak Aralar Kirolak dendak emandako buffa eta galtzerdiak eta antolaketak jarritako mosketoi-giltzatak eta ibilaldi mapa bilduma jaso zuten.

Antolaketa lanetan, berriz, Alpino Uzturre elkarteak 20 lagun in-



Ezustekorik gabe heldu ziren guztiak Uzturre mendira; ondoren, indarrak berreskuratzeko zer jan izan zuten. HITZA

guru aritu ziren eta oso gustura gelditu ziren, goiz pasa ederra eginenez. Halaber, Alpino Uzturre elkarteak eskerrak eman nahi izan dizkie Insalusi, Opil okindegiari, Aralar Kirolak dendari eta Gurutze Gorriari emandako laguntzagatik.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

PURR & PORR
du MARI MOTOTS

DVD berria
etxeko txikiak
jolasteko

PANPINAK



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)

20€

Egin eskaria amaitsu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidedun kodea

hitza